

PIRINIOETAKO I. MIKROIPUIN LEHIAKETA

2019

A fountain pen with a black and white body and a red and white cap, and a small bottle of ink with a black cap and a red and white label, are lying on a piece of white paper on a dark, textured surface. The background is a blurred forest floor with brown leaves and green moss.

Antolatzaileak:
Pirinioetako euskara zerbitzuak

AURKIBIDEA

Irabazleak

Helduak

1. saria

Normalitatea, Mirari Zabaltza Barberena 1

2. saria

Etorkizunaren giltza, Lohizune Amatria Zabaltza 2

Egile gazteak

1. saria

Gure amona, Jone Osa Basurco 3

2. saria

Hiltzaile baten prestakuntza, Garazi San Martin Solano 4

Aurkeztutakoak

Itzulera, Itziar Mitxelena Gamio 5

Sentsazioak, Puy Ziaurritz Jaso 6

Ametsak diruditen egia, Leire Martinez Erice 7

Zaraitzu, Patxi Iriarte 8

Elkarrizketa, Aitziber Ganuza Quel 9

Denbora, Xanti Begiristain Madotz 10

Arrakogoitin, Galder Unzu Etxabe 11

Xorino, Ainara Maya Urroz 12

Lagun bi, Asier Iparragirre Herrero 13

Ama, zergatik ez du negarrik egiten?, Oihane Garmendia Glaria 14

Drone-life proiektua, Txus Iribarren Corera 15

Naiz ETA, Iñigo Irurita Malón 16

Eguna ala gaua, Amaia Lopez Irigoien 17

Hitzik ez, Ana Conget Ezker 18

Aldaketa eta egunerokoa, Eneko Villegas Amezketa 19

Ezta?, Imanol Ubau Galarza 20

Aspaldi, Joxe Jabier Elizalde Urtasun 21

Arratsero, Eneko Barberena Mondragón 22

Gauaz baso batean, Ana Colomo Cantero 23

Harrespila, Gorka Pinillos Lanz 24

Bidean galduta, Josu Eseberri López 25

Mutikoa, erbia eta zizak, Aingeru Argain & Jokin Martínez 26

Laidaren ametsa, Aurizberriko AEK-ko ikasleak 27

Aitaren oroitzapenak, Alejandro Otegi & Mikel Marrodan 28

Edabe magikoa, Timo González & Gonzalo Santoma 29

Bart gertatu zen, Martín Andueza & Carlos Carballo 30

Epaimahaia

Josu Jimenez Maia

Xabier Diaz Esarte

Dabid Lalana Salbotx

Normalitatea

Tabernara iritsi da. Bakarrik dago eta leihoaren parean eseri da. Leihotik Pirinioetako mendi tontor ederrak ikus ditzake.

Egunean zehar azaleko elkarrizketak soilik izaten ditu; lanean, beste pertsona batzuekin saretzen duen pisuan edo kiroldegian. Dena den, Whatsappean aritzeko ohitura dauka. Noizbehinka zerbait idazten edo igortzen du sare sozialetara, norbaiten baieztapenaren edo interesaren zain. Ez du lorik egiten eta kosta egiten zaio esnatzea.

Bere burua eta bulba laztandu egiten ditu noizean behin, bere logelara aspaldian ez delako inor sartu. Bakardade bila aritzen da bakardadeari beldurra diolako.

Zerbitzaria mahaira hurbildu da eta eztiki esan dio:
- Zer hartuko duzu gaur, Martin?

Etorkizunaren giltza

Konturatu gabe arrotzak egin zaizkizu txikitan egunero ukitzen zenituen esku horiek. Denborak urratu ditu.

Lanak. Zaintzak.

Ezagun zenituela uste zenuen esku laztu horietako bat heltzen ari zara. Ez da agur bat, baina izan zitekeen. Bi eskuen artean, giltza bat daukazue. Etorkizunaren giltza.

Haren azalaren gogortasunak hartu duzun erabakiaren inguruan hausnartzera eramán zaitu. Beste behin. Une batez, giltza nork zeini ematen ari zaion alderantziz gertatzea nahiko zenukeen. Baina, ez. Zu zara amari Iruñean erosi berri duzun pisuko giltzak ematen ari dena. Sortetxekoak aspaldi eman zizkizun hark. Sukaldeko tiraderan bizi dira orain.

Gure amona

Amonaren etxera joan naiz bisitan. Sukaldean zegoen bera ohiko moduan, bi katuak mantalean zituela.

-Arratsalde on, amona! –esan diot. -Zer moduz?

-Kaixo laztana. Teresa zara, ezta?

-Bai, amona –erantzun diot burumakur.

Kontu-kontari aritu da arratsalde osoan zehar, bere gaztetako pasadizoak kontatzen atzo bertan gertatutakoak balira bezala. Eta gu bere inguruan barrez lehertu beharrean; eskerrak esaten dituen astakeriak umorez hartzen ditugun.

Etxera bueltatzeko ordua heldu da.

-Agur ama! Agur Amona! Bihar arte!

Ama bertan geratu da amona zaintzen.

Gaur ere ez nau ezagutu.

Hiltzaile baten prestakuntza

Mingainak ezpainak laztantzen ditu. Lasaitasunez.

Mihiaren puntarekin, ezpainak, lehenbizi eskuinetik, erditik igaroz eta ezkerrean bukatuz bustitzen ditu. Blai eginak daude dagoeneko.

Kontrolpean dauka egoera. Zangoak, arintasunez, gonan sartzen dira. Gona motzak hankak behetik gora ferekatzen ditu. Behetik gora. Oinutsik dauden oinen puntetatik gerrirainoko bidea burutzen du. Bular biluzia leuntasunez ukituz, aratz koloreko blusa ipintzen du.

Oinutsik zeuden oinak bota sendo eta finkoez babestuak daude orain. Hatzak kilimaz betetzen dira eskularruak janzterako unean.

Mingainak ezpainak laztantzen ditu. Lasaitasunez. Arma bi eskuen artean duelarik, dudarik egin gabe, katua sakatzen du. Kontrolpean dauka egoera.

Itzulera

Zure etxea ezagutzen dut. Bai, bai horixe. Mahai bueltako kontuak, sutondoko solasaldiak. Larre berdeetan, artzainen hitzetik hortzera. Muga omen delako horren bi aldeen arteko zubia, horixe nintzen ni. Guzti horien eta gehiagoren lekuko izan nintzen.

Sasoi luze batez zuen etxeko lau hormetatik at egon naiz. Zuen bailaratik ere nahi baino urrutiago. Baina berriz ere gustu handiz hartu nauzue. Txoriak ere joan egiten dira, baita itzuli ere. Orhiko txoria, Orhin laket.

Zure mingaina dantzan paratuko duen doinua, berriz ere hemen naiz.

Sentsazioak

Oinetan dardara sentitu nuen,
gorputz guztia astindu zidana.

Belarrietara soinu sakon baina leuna heldu zitzaidan.
Ahoan zapore zahar baten dastamena ukitu nituen.
Sudurrean hezetasunaren usai bustia nabaritu nuen.
Zer zen hura? Nola ez nuen aurretik sentitua?

Aspaldi amestutakoa...
basoko zuhaitzak komunikatzen ari ziren... eta nik
hauteman nezakeen

Ametsak diruditen egiak

Negu-pasa egitetik zetorren niregana eta ni gaupasaz. Berak oro egin zuen eta nik korrok. Ez da ohikoena hartz batekin solasean aritzea, baina tira, banuen norekin tragoa hartu, plastikozko edalontzi eramangarrian neraman azken garagardo epel eta gasik gabea.

- Ni Arkaitz Garraldakoa, eta hi?

- Aunitz urtez. Ni Larrumarroi nauk, Pirinioetakoa. Kafea behar diat, gaua luzeegia izan duk.

- Nik ere bai, motel.

Gizakien eta hartzen despopulazioak aritu ginen luze, eta adiskidetasunaz eta literaturaz ere bai.

Hurrengo egunean, gezur ala egi dikotomian aritu nintzen gogoetan. Trufen eta iseken beldur; Gizartearen koherentziaren beldur.

Izan ere, badira bizian egiak diruditen ametsak eta alderantziz.

Zaraitzu

Otsagabiako feriak hilean behin eitten dira giro onean, Autxak, Axarik, Pardixak eta gu Zaitzuarrok biltzen gara trukatzeko eta erosteko asmoz. Jendea ezagutu, lagunak ikusi ta Atabeara jaisteko garaia heltzen denean oiloak ikusten ditut baratzean aztarrike.

Uskartzeko bormapeko plazan Kalba Xokoan ari dira ta, apoa! axorlea airean da. Bakarren batek punteria ona du ta zintzurra bustitzeko saria lortu. Elizauria heltzean Johanko Aroza etxeko nagusiarekin eitten dut topo ta itzalgiroan feriaren berri ematen diot. Orain etxera, Jauregi etxera, bidaian lagun izan dudan mandoari bazka eman, sua piztu ta urdaie mokorra arraultz batekin apalduko dut. Bihar, bihar ere argituko du.

Elkarrizketa

- Seme, nolako eguna pasa duzu eskolan?

- Bikaina! Arbasoen bizimoduaz aritu gara. Badakizu?

Aimarren amonak ibilbide luze-luzeak egiten zituen beste enarekin lasterka etxera bueltatzeko. Naroaren aitonak arroileko arriskuen gainetik korritzen zuen bere aita almadiazainari agur esatera. Gorkaren birramonak kilometro ugari zeharkatzen zituen arin-arin herriko mugalariei elikagaiak emateko. Lorearen birraitonak agintarien mehatxuetatik ihes egin zuen abiadaz gerraondoren esklabo zenean.

- Horiek ahaleginak! Eskerrak dena aldatu den...

- Ez aita, ez al zara konturatzen?

- Zer?

- Guk ere enara, almadiazain, mugalari eta esklaboen modura geurean egon, oztopoak saltatu, maite duguna defendatu eta askatasunez bizitzeko Pirinioan sutsu egiten dugu Korrika!!!

Denbora

Hasieran, bikiak eta biok, denbora osoa elkarrekin ematen genuen. Geroago, denbora gehiena elkarren ondoan, haur eskolan...

Eskolan, bi ikasgeletan jarri gintuzten. Denbora gutxiago genuen elkarrentzat.

Ahizpa institutura joan zen; ni, kontserbatoriora.

Orduan, tarte gutxiago geneukan biontzat.

Geroxeago, ahizpak atzerriko unibertsitate batera jo zuen. Nik, hemengo kontserbatorioan jarraitu. Hiru oporraldietan soilik elkartzen ginen.

Karrerak bukatutakoan, ahizpak AEBetan lortu zuen lana; nik, Alemanian. Udetan bakarrik elkartzen ginen. Gero, norberak bere familia eduki zuen. Bi urtez behin batzen ginen gurasoen etxean.

Gurasoak hil ziren; bost urtean behin elkartzen gara.

Konturatu naiz oso egun gutxi ditugula elkarrekin egoteko, eta, hori, oso tristea da.

Arrakogoitin

Lainoak ez zuen urruti ikusten uzten. Itzalak. Ertzak.

Bat-batean harriak dantzan. Urratsak. Arnas hatsa.

“Norat zoaz ba?” -luzatu zidan hitza.

“Izabarat, gazta egiterat, Donojororat” -ihardetsi nion.

“Zu Maulerat?”

“Atharratzen pausatuko dut oin a oraingoan” berak motz.

“Gaua gainera badatorkizu, eskatu aterpe Eiheraluze etxean, bertako seme nauzu. Amak nire ohatzean egingo dizu leku”.

“Maleruski presaz nabilkizu. Etzi goizez sarturen naiz neskame Atharratzeko Xaho Jauregian. Halere, katilukada bat esne eztitsu harturik biziki eskerturen dut zure amaren epela. Ziur naiz zure gasnek zure xamurtasuna izanen dutela. Segi bizkor” -eta fite abiatu zen Binbaletako lepoan behera.

Xorino

Euskaldunoi bizitzera bulkatu gaituen amets komun horrek egin du bere bidea isil-isilik, arroken aurka eta zipriztinduz ertzak. Hego-bihotzez mintzo natzaizue, herri honetan sortu bainintzen, aske izateko luxuzko nahi lorgaitz horrekin dantzan; horregatik, ene bihotza hegoduna da. Nire herria haritz bat da, nire amaren itzala lorategian, eta gauza soil edo errazen besta goxoa dago bertan, eta lurreko bake honetan eguzkipean bihotzari kasu egiten segi nahi diot, baina seguru asko erromantiko huts izatetik burua hotz jokatzera pasa beharko dut laster. Bizirauteko, eta mundu honetatik bizirik ateratzeko.

Lagun bi

(...)

- Egon hadi lasai, motel; denborak zauri guztiak sendatzen ditik.

- Ah, bai? Eta zergatik ez zizkidak orain artekoak sendatu?

(...)

Ama, zergatik ez du negarrik egiten?

“Ama, zergatik ez du negarrik egiten?” Galdetu nion amari hileta batera joan nintzen lehenengoan. Artean 5 urte nituen. Amak erantzun zidan: “Laztana, mina handiegia denean nagusiok atsekabea barruan gordetzen dugu, kanposantura gerturatzen direnek ezingo luketelako oinazea jasan. Halakoetan, pastilla bat hartu eta malkoak lehortzen dira, lantua mututzen da eta bihotza uzkuratzen da.”

20 urte igaro dira ordutik eta oraindainoko hileta guztietan zendutakoaren senideek pastilla hartuta ikusi ditut. Gaur arte. Gaur hildakoaren amak ez du pastilla hartu; negar malkoak ez zaizkio lehortu eta denok entzun dugu haren lantuen mina. Eta guztioi uzkuritu zaigu bihotza.

Drone-life proiektua

Pirinioko mahaian adostutako ideia ona izan zen.

Elikadura burujabetza globalizazio neoliberalari nagusitu zitzaion. Ehiztari, ekologista, merkataria eta abeltzainaren artean bitartekari lana egin ondoren denek irabazi zuten, transnazionalak izan ezik.

Amazonen inoiz ez zuen pentsatuko lehendabiziko porrota Pirinioetako lepoetan aurkituko zuenik.

Denboraldiaren emaitza izugarria izan zen. Luzaideko usategietan 230 drone lurreraturik. Aezkoakoan, 170.

Zaraitzun eta Erronkarin, beste horrenbeste. Usoak pozik, Afrikaruntz tiroketarik jaso gabe. 0 km-ko ekoizleak zorientsu eremua gotorleku bihurtua “low cost” hegazti motordunen aurrean. “On line” saltzaile erraldoiak hobe izango luk “Rolanen abestia” irakurri izana European banatzeko aireko sistema logistikoa martxan jarri baino lehen... Dabidek Goliat irabazi zuen berriro...

Naiz ETA

Nahiz eta jendearekin egon, bakardadea ikusten dut.

NAhiz eta pobrezia egon, aberastasuna ikusten dut.

NaHiz eta gutizia egon, elkartasuna ikusten dut.

NahIz eta gorrotoa egon, maitasuna ikusten dut.

NahiZ eta heriotza egon, bizitza ikusten dut.

Nahiz Eta laino egon, eguzkia ikusten dut.

Nahiz eTa porlana egon, natura ikusten dut.

Itsua Naiz etA, mundua dakusat.

Eguna ala gaua?

Eguna eta gaua.

Gaua. Iluntasuna. Izarren isilpean, ezkutuak, gordeak, keinuz beteta begiradak xuxurlatzen, murmurlatzen dute. Sekretuak ozenki aske ibiltzen dira itzaleko iluntasuna aprobetxatzen.

Usain gozoak indartsuagoak, zehatzagoak, erakargarriak. Ilargiaren argitasunpean, katamaloak baztertzen dira.

Gu gara.

Gure zatarrarekin, gure indarrekin, gure mamuekin.

Gu geu.

Eguna. Argitasuna. Begiradak adi, irekiak. Keinuak milaka. Ametsak errealitatea bihurtzen den mementoa.

Nahiak gauzatu egiten diren lekua.

Poliki-poliki katamaloak itzultzen dira, lotsati, beldurturik, gure buruko etiketengatik, gorputzean jarri ditugun, leku guztietan ipintzen ditugun etiketengatik.

Bihur ezazu gaua zure egun, eguna gau.

Nahi duguna, nahi dugunean.

Gau eta egun, geu izaten

Gau eta egun, geu garelako

Hitzik ez

Ilunabar haizetsu batean, etxe zaharra utzita, Gorka kalera doa; eguzkia beste goiz baten zain sartu da.

Deseroso, ikustezina, izugarri txikia sentitzen da, itzalean ezkutaturik, besteekiko bereizten duen horma apurtzeko ezgai. Hitzak, ezin esan dituen hitz madarikatuak...

Onartzen du jendeak begiratzen ez duela, zoriontsuak direla dirudi...

Maitek, eskuak mugituz, agurtzen du. Gorkaren begiek poza distiratzten dute; nahia, mina eta beldurraz begiratzuz ez dio ezer esango, hitzez ez dituelako hitz egiten; irribarre bat, besterik ez, egoera barregarri honengatik lotsatuz.

Bestek bere isiltasuna izendatu arren, berak badaki hitzak bakarrik ez dela. Mantsoki aterpera itzultzen da, aske, seguru, eskuak beroki poltsikoetan sarturik.

Aldaketa eta egunerokoa

Udaberria euritsua zen. Bere lekua topatzen ez zuen bere inguruan, ate asko itxi zitzaizkion garai horretan.

Etxetik urrun, norbaitek leiho bat irekita utzi zion.

Hantxe ziurgabetasuna, zer ekarriko lioke leiho ireki horrek, lekurik ez eduki arren oso eroso zegoen, aldatzeak beldur ematen zion. Ez-ohiko indarrak batuta, leiho hori aprobetxatzea otu zitzaion. Hasieran pausu txiki eta dardartiak ematen zituen, ingurua ezagutzen joan zen arte. Orduan pausuak sendo eta handiak egiten zituen, berriz ere eroso sentitzen zen horretan.

Bapatean gertaera batek berriz ireki zizkion garaiko ateak, halere orain ez zen aldaketaren beldur, aurreko eguneroko horren beldur baizik. Aldaketak maitemindu zuen.

Ezta?

Hodei jaio da.

Hurtzaindegian bera bezalakoak diren haurrak ezagutu ditu.

Ibiltzen ikasi du.

Bere lehen hitzak erraten hasi da.

Eskolan jolasten eta ikasten egunak pasatzen ditu.

Lehenengo urteak errezak egiten zaizkio.

Zailagoa egitzen hasi zaio.

Handia denerako ikasketak aukeratu behar ditu.

Pentsatzen hasten da.

- Zer gustuko dut egitea

- Zertan naiz ona?

- Noren antza izan nahi dut?

- Hori lortzeko, zer egiteko prest nago?

Hori aztertuta, gauzak argitzen joan zaizkio.

Hausnarketan bere burua gehiago ezagutu du.

Dohain, erreztasun, gustu, amets, kuriositate... berezi batzuk dituela ohartu da.

Bereak direnak.

Zoriontsua egiten dutenak.

Bere lekua sortu nahi du.

Denok dugun lekua.

Ezta?

Aspaldi

Gorroto nuen eskolara joatea.

Nahiago nuen baserriko lanetan aritzea, zerriendako anbuluak biltzen, edota, Bixi txakurrarekin zozoen kantak zein errekaren pol-polla aditzera joatea. Gainera, Anastasia maistrak edozein tontakeriagatik urritz makilaz kolpatzen gintuen. Goizero “zer egun da?” galdetzen zigun. Behin, Fermintxok: “Abenduaren 13a, Santa Luzi, gaua moztu eta eguna hazi”. Ateraldiarekin irri egin genuenok ederki probatu genuen, bai, urritz hagaren fereka. Beste batean, sorgina, bibotea eta guzti, marraztu nuen, eta haren ondoan “Anastasia” idatzi. Maistrak ikusitakoan, haserre, makila goratu eta... Ahots goxo batek: “ebakuntza ondo atera da”. Erizaina zen. “Amesgaiztoak izan dituzu, ezta? Anestesiarekin gertatu ohi da, egon lasai.”

Arratsero

Arratsero egoten nintzaion so gorde antzean, berak ni ikusiko ez ninduen distantzian badaezpada ere, jabe zen izter ederrek liluraturik. Luma berokiz jantzia, dotore agertzen zen, nekaezin, bere etxe xumearen bueltan hara eta hona; zaintza lanetan, lurraren fruituak jasoz edo eleketan. Maitasun harrapakariz egiten nion so, norbaiten gose zarenean duzun barne bulkada geraezinez.

Maizter zen ordea bizi zen etxean eta noizean behin jabeak agertzen zirenean beldur nintzen ez ote ninduten ostikoka errezibituko, ez baikara fama oneko nire jitekoak inguruotan. Azala gorriegi eta fama beltzegi gauza onerako.

Arratsero egoten nintzaion so, azeriak ehizatuko duen oiloa beha dezakeen moduan.

Gauaz baso batean (Jon Mirande gogoan)

Tabernan eserita, zerbitzariari begira, gizon urdin bat zegoen. Eskuan zigarroa, ahoan malaparteko hitzak eta buruan basoa. Zerbitzaria irribarretsu, basoa bere lekuan uzteko eskatu zion.

-Jon, utz ezak basoa mostradorean, otoi!

Jonek, zigarroa lurrera bota zuen eta ahotik kea zeriola, burua makurtuta, basoa hartu zuen eta herriko mokarte ilunetan galdu zen. Gauda eman zuen baso batean.

Harrespila

Egunsentia,
hautaturiko bakardadea,
iparraldeko haizea.
Harrespila baten erdian, begiak itxita, eserita.

Argi ilunean ageri, lur azpiko munduetako izaki *gautarrak*,
bata bestearen atzean, isiltasunean, harri bana bizkarrean;
pauso sendo leunez, Auñamendi magalak igarotzen
mendebalderantz.

Laster tximistak urrunean.
Izaki haiek, biribiletara deituak.
Harrespilak nagusi orain mendi goietan.

Irrintziak, azpimunduko deialdia omen.
Biltzarrak hastera doaz.
Eguntarrekin bat, elkarlanean jarraitzeko hautua egin dute
guntarrek.
Mari dute bozeramaile.

Heldu da ekaitza. Ardien balaka. Begiak argi bila.
Makila jasota, kobazulora bidean gure artzaina.
Zein ote izaki haien mundua? Harrespila haien barruan ote?

Bailaran, herria bizi-bizi, lainoek ekaitza berriki irentsita.
Urtaro oro legez, elizako kanpaiek bizilagunak deika artelanera.
Artzainak mendietan, herri-lurrak zaintzen.

Auñamendiko bailararen batean,
duela ez hainbeste udaberri

Bidean galduta

Bidea nora? Oinak hara. Mendian gora, mendian behera, ardiak eta behiak edonon. Hala zebilen gure Ilargi egun eguzkitsu hartan. Halako batean, zakurra azeri baten atzean joan zitzaion eta lasaitasuna, AKABO! Amarruekin hasi zen zakurra engainatu nahian, baina jai! Azeria, zakurra (Hamaika zuen izena), Ilargi, oihuak, eguzkia, beroa, nekea, eta bate-batean, Hamaika eta azeria, batera, ziztu bizian Ilargi ondoan pasatu ziren; kontrako norabidean, isatsa hankartean. Kontxo! Esloveniako laguna! Hamaika ikusteko jaioak gara!

Mutikoa, erbia eta zizak

Nire herrian zizak hartzea izugarri maite zuen mutiko bat bizi zen. Sasoia ailegatu zenean, ziza txiki txikiak aurkitu zituen eta hartu gabe utzi zituen hazi zitezen.

Hurrengo astean, berriro joan zen eta bertan erbia eta erbikumeak topatu zituen tripako minez. Orduan galdetu zien ea zergatik jan zituzten ziza guztiak eta erbi familia guztia biharamunik egongo ez balitz bezala barrez lehertzen hasi zen. Mutilak hori ikusita bongiak jan zituztela zirudiela pentsatu zuen. Ordutik oso lagunak dira animaliak eta mutikoa. Baina egun batean zulo beltz batean erori ziren.

Laidaren ametsa

Nire izena Laida da eta amuarraín bat naiz. Txangoako errekan jaio nintzen eta nire ama Agoitzekoa da. Nik ez dut amaren herria ezagutzen eta izugarri gustatuko litzaidake ezagutzea.

Ibaian behera bidaian ateratzen naizenean, Orbaizeta, Orbara, Aribé, Oroz eta Artozki bisitatzen ditut. Artozki urpean dagoen herri bat da. Herri hori pasa ondoren, horma handi batekin topo egiten dut, horregatik ez da posible nire amaren herria ezagutzea, ez horma pasatzea ezta bisitatzea ere. Ni oso triste nago... Zer egin dezaket?

Aitaren oroitzapenak

Nire aita hil zenean, ni oso txikia nintzen eta ditudan oroitzapenetatik bat kontatuko dizuet.

Arratsalde batean, behiak ikustera soro batera joan ginen eta iritsi ginenean, soroko atakan hanka sartu nuen eta belauna trabatuta geratu zitzaidan. Negarrez aitari etxera joateko esan nion ataka apurtzeko zerbait ekar zedin. Une hartan, Aitak ostiko bat eman zion atakara eta puskatu zuen. Orduan, hanka atera nuen eta oso pozik etxera itzuli ginen.

Edabe magikoa

Bilbon, jai batean, Mikel eta Edorta zeuden. Festa
ikaragarriaren momenturik gorenean, Mikelek
Edortaren ondoan edaria edan dezan utzi zuen.

Orduan, Edortak hurrupa egin eta euskaraz solasean
hasi zen, nahiz eta euskaraz ez jakin. Inguruko jendea
flipatzen hasi zen. Hara zer ezustea!

- Noiz ikasi duzu euskara?

- Ez dakit, ez dut ezer ulertzen!!


Mikel Aek-ko irakaslea zen, baina kimika ikasi zuen.

Hori dela eta, bere aisialdian euskaraz hitz egiteko
edaria asmatu zuen. Zabalduko balu, jendeak euskara
hitz egingo luke, eta lanpostua galdu; eta ez balu
zabalduko, jendea aukera gabe geratuko litzateke.

Bart gertatu zen

Orain dela sei hilabete inguru, hiru koloredun kateme bat etxean agertu zitzaigun. Nondik eta nola etorri ote zen? Ez dakigu, baina oso atsegina eta nahiko lapurra zen. Lepoan orban gorri bat zuen, bizkarra zuria eta hanka horiak. Katixa izena jarri genion eta gure katutxo berehala ernari geratu zen. Asko jan eta ikaragarri loditu zen.

Etxeko egurtegian nire emaztek kartoizko kaxa bat jarri zuen, Katixak erditzeko erabiliko zuelakoan. Eta hala egin du, gaur goizean kaxa ikustera joan naiz eta han aurkitu dut katua bere kumetxoekin. Hiru katakume txiki txiki eta ezberdinak izan ditu. Bart erditu zen!!



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

